



**Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 31eko EBAZPENA, zuzendari berarena 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpena, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen, aldatzen duena.**

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduaren (2022ko urriaren 14ko EHAA) bidez estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean.

2023ko urtarrilaren 16an, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu zen Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak lanpostu hutsen behin betiko proposamena, lanpostu hutsen hasierako proposamenari egindako alegazioak aztertu eta plangintzako lurralde-batzordeei entzun ondoren.

Aurreko artikuluan aipatutako lanpostu hutsen proposamenaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 17ko Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen.

2023ko urtarrilaren 31ean aldaketak gertatu dira lanpostu hutsen behin-behineko proposamen horretan; hots, Biologia-Geologia espezialitateko lanpostu bat, D ereduakoa, kentzea Vitoria-Gasteizko IES MIGUEL DE UNAMUNO BHIan, eta Kultura Klasikoa espezialitateko lanpostu bat, D ereduakoa, gehitzea Basauriko IES URIBARRI BHIan.

Lanpostu hutsen proposamenaren aldaketa dela-eta, aldaketa hori Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenera, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dituen, eraman behar da.



Horregatik guztiarengatik,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehen artikulua.-** Ondorengo terminoetan aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez argitara emandako behin-behineko lanpostu hutsen eranskina:

- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 13. orritik hau erretiratzea: Biologia-Geologia lanpostu bat Vitoria-Gasteizko IES MIGUEL DE UNAMUNO BHian.
- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 111. orrian hau sartzea: Kultura Klasikoa lanpostu bat Basauriko IES URIBARRI BHian.

**Bigarren artikulua.-** Interesatuak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 31ean

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**